

ZARAUTZ / Liburutegiak ipuin kontaketa eta irakurketa saioak antolatu ditu

ZARAUTZ. DV. Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren inguruan ipuin kontaketa eta irakurketa txokoaren saioak izango dira. Honela, gaur, asteazkena, apirilaren 2an, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna dugu, Hans Christian Andersen idazlearen jaiotze eguna ospatzeko. Hau dela eta, arratsaldeko 17:30etan Haur Liburutegian kontaketa izango da haurrentzat Pello Añorgaren eskutik, (4 urtetik gorakoentzat).

Bestalde, apirilak 9, 16 eta 30ean, -baita ere asteazkenak- eta 17:30etatik 18:30etara Haur liburuaren egunaren inguruan irakurketa txokoak antolatu dira Miriam Mendozaren eskutik.

Aipatu ere, Liburuaren egunaren inguruan urtero, apirilaren 23an, Liburuaren Eguna ospatzen dela, Miguel De Cervantes Saavedra idazlearen jaiotze egunean. Egun horretan ere kontaketa egingo da haurrentzat, baita ere Pello Añorgaren eskutik, Gerlari handiaren ipuina aurkeztuz. Ondorengo egunean, apirilak 24, XXV. Lizardi Sariaren banaketa.

Baita ere, apirilean zehar, Hegoaldeko, Cuba, Honduras... eta Sahararako kanpainarako liburu bilketa egingo da, herritarrak kanpaina honetan hartzera animatuz. ELAN-Euskadi, Hegolan eta Zaharautz, Gobermuz Kanpoko Erakundeek (GKE, ONG), aurten ere, liburua protagonista duen hilabete honetan, liburu bilketari ekingo diote.

Hori dela eta, Sanz Enea Liburutegiak bilketa horretan parte hartuko du eta, bildutakoa aipatutako GKEn artean banatuko du. Beraz, liburuak, zein CD, VHS, DVDekin beste herriko biztanleei laguntzeko prest dagoenak bai liburu, baita CD, DVD eta VHS-ak ere liburutegira ekartzerik besterik ez du.